

## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### Murgialdaiko ganaduak

**A**spalditxo azaldu zan lehenengo aldiz **Murgialdai Kontzejupetik** aldizkariko atal honetan; 1996ko bagillian, hain zuzen be. Baserri onduan egon zan XVI. gizaldiko **San Andres ermittiari** buruz geniharduen, XVII.nian **Asentzio adbokaziñua** hartu ebena eta 1906xan gaur egungo kokalekura aldatu zana. Baserrixak berak be itxuraldaketa nabarmena izan eben handik gutxira, orduko fotografixan garbi samar ikusi leikienez. Dana dala, **ermitta zaharraren harlandu batzuk baserri barriko atia moldaitteko** ebali ziran. Orain dala sei urte, berriz, Aitta **Fermin Altube** frantziskotarraren meza barriko argazkixa orrialde honetarako aukeratu zanian be, Murgialdaiko pasadizo eta xehetasun batzuk aittatu gittuan.

Gaurkuan beste kontu batzuekin gatoz. Ezin ukatu bi bizitzako **etxetzar hori izenaren jabe** danik. Izan be, Murgixa auzo historikuan eta Ubao erreka ertzetik gora igoten dauen **aldaixaren akaberen dago** eta. **Aldaixak erripa gogorra eta motza** dakoin parajiak izaten dira. Oñatin eta inguruko beste herri batzuetan be agerketan xaku lekuizen hori: gurian Olabarrietan eta Torreauson, esaterako. Murgialdaik erreka aldera pendiz haundixa badako be, **etxeostian lursail zabalak eta suabiak** dittu, soro eta zelaittarako aproposak. Orain txakoliña egitteko mahastuiz beteta dagozen lurrok lehenago garixa eta punturarte artua ereitteko nahiz ganaduen larratarako ebalten ziran.

**Fotografixia** nun atarata daguen eztago esan biharrik: Santa Marinako plazan, **Antixena eta Madinabeitia palaziuen aurrian**, jakiña. Eguna asmaittia be ezta hain gaitza: **Errosarixoko bixamonian egitten zan ferixa nagusixan**, azkenengo berrogei bat urtian aurreko zapatuan, Herri Egunian, ospaketan dana. Argazkixa **1960ko hamarkadiaren hasiera ingurukua** ei da. Sarittutako behixekin batera hemen agiri diranak honeitxek ditzuzue ezkerretik eskumara: **Migel Guridi Estetxe**, Murgialdain apopillo eguala, hogetaka urtian Olabarrietako Arrazolaneko teillerixan lanian jardundakua; Oñatira gerra ostian etorri zan Aramaixotik; ondoren **Murgialdaiko hiru anaiak** datoz: **Fermin, Luxiano** eta **Iñaxio Galdos Urzelai**.

Iñaxioren semiak, **Aritzek**, esan dosku behi horreik **arraza suitzarrekuak** zirala, esnetarako egogixak; geruago ganadu fri-siarrak be euki zittuaila; entzunda dakola **Ospital izeneko behi batek poz haundixak** emun ostela etxeuairi ona zalako eta txapelketa danak irabazten zittualako. Harrezkero gorabehera sakonak etorri ziran: saniamendu-kontuak, arraza-aldaketak, ganaduak hazteko beste ikuspegi bat, **Lana** kooperatibia, eta abar. **Azkenaldiko kanbixo sakona** ondo ezauketan dau Murgialdai ingurutik pasiauan ibiltten dan oñatiar pilliak: **etxeko markako txakoliña egitteko mahastui ederrak**.

**Fotografixia Jabier Atxa eta Luis Maiztegiren bittartez heldu xaku. Argibidiak Aritz Galdos eta Jose Ramon Arrazolari zor dostegu. Milla esker danoiri!**